

1. BALIO PROPOSAMENA



Gaur egun, teknologiak duen garrantzia kontutan izanda gure proposamena gurasoen beharrak asetzen dituen APP-a sortzea izango da. APP-ak honetan, 0-6 urte bitarteko haurren garapenaren inguruko informazioa eskuragarri izango dute. Hortaz gain, liburuak on-line erosteko aukera izango dute. Liburuaren arabera prezioa finkatuko da baina gutxienez 10 euroko prezioa izango dute eta gehienez 30 euro. Guraso, hezitzaile eta haurren inguruan ibiltzen diren pertsonentzako sortua da, beraien kezkak konpontzeko.

Bertan, haurraren garapenari buruzko informazioa aurkituko dugu eta edozein zalantza argitzeko sortuko genuke. Nahiz eta merkatuan antzeko aplikazioak egon, guk, berezitasun bezala eta gure lehiakideek ez dutena honako hau da; 24 orduko kontsulta egongo da, hau da, beti norbait egongo da pantailaren atzean gure erabiltzaileei sortzen zaizkien kezkei erantzuteko prest.